

2016-02-16KO EZOHIKO UDALBATZA

Irurako udaletxean, 2016ko otsailaren 16an, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ezohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Ana Jesús Leunda Gurruchaga izan da, korporazioko alkate-lehendakaria, eta gaiak aztertzeko zinegotzi hauek agertu dira:

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Jesus Maria Alonso Insausti, Jose Ramon Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian eta Marta Castrillo Iturralde.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: 0.

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Ainhoa Ugalde Gorostiaga, Mikel Gotzon Iturbe Saizar, eta Olaia Nieto Legarra.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Jose Ignacio Imaz Bengoechea (jakinarazi egin zuen)

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkariak egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, bertara agertu baita gutxienerako partaide-kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutakoa.

LEHENENGO GAIA

2016. EKITALDIKO IRURAKO UDALEKO AURREKONTU OROKORRARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA, HALA BADAGOKIO.

Alkateak hau adierazi du:

“Aurtengo aurrekontua 2.120.000 eurokoa da.

Aurrena gastuak aztertzen hasiko gara.

1. kapituluan, soldataren igoera % 1ekoa da.
2. kapituluan, aurreko urtearekin konparatuz, gastu arrunta zeozer jaitsi da, eta jaitsierra garrantzitsuenak izan dira eraikinen mantentzean, ibilgailuen konponketan eta San Migel jaietan; azken honetan, 2015ean 60.000 euroko gastua egin genuen, eta aurtun sartu dugun kantitatea 40.000 eurokoa izan da.

4. kapituluan, igoera batzuk dauzkagu: hondakinen faktura, Loatzo musika eskola, oraindik ez dakigulako zenbat izango den, gizarte zerbitzuetako diru-laguntzak, euskara zerbitzuko euskara ikasteko diru-laguntzak, Galtzaundirekin egingo dugun hitzarmena eta 28 kanalari emango zaion diru-laguntza. Azken honi eskatutakoa baino diru gutxiago emango diogu, Irurako biztanle bakoitzagatik 2 euroko diru-laguntza eskaera egin baitu; eta kontuan hartuta Atariari biztanleko 5 euro ematen zaiola, erabaki dugu 3.000 euro ematea.

5. kapituluan, inbertsionarako mugak ditugu. Daukagun dirua daukagu, sarrerak direnak dira eta, gastuak deskontatuta, ez daukagu diru gehiago inbertsionarako; 228.500 euro dira eta bere finantziarioa honakoa izango da: aurrekontuaren aurrezkitik 178.500 euro eta lur jabetzaren funtsetik 110.000 euro. Egingo diren inbertsio garrantzitsuenak hauek izango dira:

- Kaskailu plazako parkea estaltzea.
- Hilerriaren hobekuntza, 1. fasea.
- Kale Nagusiko 38-42 urbanizazio berria.
- Aizpuruako txabolak botatzea.
- Industriagunea berritzea, 1. fasea.

Egia da Irurako herrian proiektu asko dagoela egiteko, eta lehentasuna horiei eman diegu. Urtean zehar ikusiko dugu nola gabiltzan diruarekin eta, horren arabera, zer edo zer gehiago egiterik badaukagun, adibidez, azkeneko batzordean aipatu genuen Pello Arrese-Igorreko espaloien konponketa. Momentuz proiektu hauekin hasiko gara lanean.

7. kapituluan, Irurako ikastolari ematen diogun 75.000 euro.

Sarreretan, berriz, aurreikuspenen arabera:

1. kapituluan, igoera daukagu zuzeneko zergetan.
2. kapituluan, transferentzia arruntetan, FOFINetik igoera bat daukagu eta 1.042.000 eurokoa izango da gure ustez. Diru-laguntzaren bat edo beste ere sartuko dela uste dugu, baina ez dakigu ziur.

Udalaren Aurrekontu Orokorren proiektuaren berri eman da. 2016ko jardura ekonomikorako aurrekontua da; udalaren berezko aurrekontua da soilik. Izan ere, Udalak ez dauka Erakunde Autonomorik, ez beste edozein erakunde edo enpresarik. Proiektua korporazioko lehenakariak aurkeztu du, udal honetako idazkari kontu-hartzaileak informatuta. Aurrekontuari erantsi zaio Aurrekontua betearazteko udal-araua.

Se da cuenta del Proyecto de Presupuesto General de este Ayuntamiento para el ejercicio económico de 2016. El presupuesto comprende solamente el del propio Ayuntamiento, al no haber Organismos Autónomos u otras Entidades o empresas municipales. El Proyecto es presentado por la Presidente de la Corporación y está informado por la Secretaría-Intervención. Se adjunta también la Norma de ejecución presupuestaria.

Aurrekontu Orokorra aurrekontu eta kontabilitate gaien inguruan indarrean dauden legeen arabera osatu da, hala ezartzen baitu abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen aurrekontuei buruzkoak. Hasierako defizitik gabe osatu da eta Udalbatzari aurkeztu zaio, onartu, itzuli edo zuzen dezan.

Gainera, kontuan hartzen dira Aurrekontuen Egonkortasunari eta Finantzen Iraunkortasunari buruzko arauak, eta idazkari kontu-hartzailearen txostena, arauak betetzen direla dioena.

Halaber, Kontuei, Ogasunari eta Administrazioari buruzko Informazio Batzordeak, 2016-02-11n egindako bileran, onarpena eman dio.

Horren aurrean, bere edukiaren inguruan azalpenak eman ondoren eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzak honakoa erabaki du, aldeko 5 botorekin (EAJ/PNV) eta aurkako 3rekin (EH Bildu):

ERABAKIA

Lehen.- Onartzea 2016rako gastu ez finantzarioaren muga: 2.284.549,80 euro.

Bigarrena.- Irurako Udalaren 2016ko Aurrekontuari hasierako onarpena ematea. Udalaren berezko aurrekontua da soilik. Gastu eta sarreraren egoera atalka laburtuz gero, honela gelditzen da:

El Presupuesto está formulado de acuerdo con la legislación en vigor en materia presupuestaria y contable y sobre todo, de acuerdo con la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Se ha formado sin déficit inicial y se presenta al Pleno de la Corporación, para su aprobación, devolución o modificación.

Además, se tiene en cuenta la legislación en materia de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera y con informe de la Secretaría-Intervención de que se cumple la misma.

Así mismo la Comisión Informativa de Cuentas, Hacienda y Administración, en sesión celebrada el 11-02-2016, ha aprobado la misma.

Ante ello y dadas las aclaraciones oportunas sobre su contenido y previo debate, la Corporación acuerda por 5 votos a favor (EAJ/PNV) y 3 en contra (EH Bildu), lo siguiente:

ACUERDO:

Primero.- Aprobar para 2016 el límite de gasto no financiero: 2.284.549,80 euros.

Segundo.- Aprobar inicialmente el Presupuesto de 2016 del Ayuntamiento de Irura. Está formado únicamente por el del propio Ayuntamiento y comprende el siguiente resumen por capítulos:

Sarrerei dagokionez:

KAPITULUAK	IZENA	EUROAK
1	Zuzeneko zergak	606.000,00
2	Zeharkako zergak	20.000,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	266.000,00
4	Transferentzia arruntak	1.100.000,00
5	Ondarezko sarrerak	16.000,00
6	Inbertsio errealak inorenganatzea	110.000,00
7	Kapital transferentziak	500,00
8	Aktibo finantzarioak	1.000,00
9	Pasibo finantzarioak	500,00
SARREREN AURREKONTUA GUZTIRA		2.120.000,00

Gastuak, bestalde:

KAPITULUAK	IZENDAPENA	EUROAK
1	Pertsonal-gastuak	822.500,00
2	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	604.200,00
3	Finantza-gastuak	500,00
4	Transferentzia arruntak	327.800,00
6	Inbertsio errealak	288.500,00
7	Kapital Transferentziak	75.000,00
8	Aktibo finantzarioak	500,00
9	Pasibo finantzarioak	1.000,00
GASTUEN AURREKONTUA GUZTIRA		2.120.000,00

Ez da berezko Aurrekontu Orokorra deskribatu, horren errepikatze hutsa delako.

Honela, 2016ko jarduera ekonomikorako Aurrekontua Betearazteko Udal-araua onartu da.

Bigarrena.- Espedientea jendaurreko informaziorako jartzea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko

No se describe el Presupuesto General por ser mera repetición del mismo.

Así mismo se aprueba la Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria del ejercicio económico de 2016.

Segundo.- El expediente se somete a información pública, mediante anuncio publicado en el Boletín Oficial del Territorio Histórico

Aldizkari Ofizialean argitaratuz,
hamabost egun baliodunez,
erreklamazioak egin ahal izateko.

de Gipuzkoa, por el plazo de 15 días hábiles, para la presentación de reclamaciones.

Aurrekontua erabat onartutzat
joko du udalak, aipatutako epean
erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Si no se presentan reclamaciones en dicho periodo, se considerará definitivamente aprobado.

Behin betiko onartutako
aurrekontu orokorra Gipuzkoako
Lurralde Historikoko Aldizkari
Ofizialean argitaratuko da atalka
laburtuta.

El presupuesto general, definitivamente aprobado, se publicará por capítulos en el Boletín Oficial del Territorio Histórico.

Behin betiko onartutako
aurrekontuaren kopia bat bidaliko du
Udalak Gipuzkoako Foru Aldundira. Eta
gero hark administrazio eskudunei
bidaliko die.

Una copia del Presupuesto definitivamente aprobado, se remitirá a la Diputación Foral de Gipuzkoa, que será la encargada de enviarlo a las Administraciones competentes.

Hirugarrena.- Aurrekontua
dagokion ekitaldian jarriko da indarrean,
aurreko atalean aurreikusitako eran
argitaratu ondoren.

Tercero.- El presupuesto entrará en vigor en el ejercicio correspondiente, después de su publicación en la forma señalada anteriormente.

Gainera, aurrekontuaren kopia bat
eta bere aldaketak jendearen eskura
egongo dira, informazioa izan dezaten,
behin betiko onartzen den unetik
jarduera bukatu arte.

Además una copia del presupuesto y sus modificaciones, estará a disposición de la ciudadanía, para que tengan la suficiente información, desde su aprobación hasta el final del ejercicio.

Ainhoa Ugalde zinegotziak, EH Bilduren izenean, hiru punturen aurka daudela esan du:

- a) Ohiko bizilekuak ez diren etxebizitzetara erreformak kentzea.
- b) Zarretxe lokaleko erreformaren obra ez egitea, behintzat aurrekontuan ez azaltzea.
- c) Goiko parkea estaltzearen ordean ibaiko parkea estaltzea, lehenengoa garrantzitsuagoa izanik.

Hori dela eta, eta beste gauza batzuekin ados izan arren, aurka bozkatu dute.

BIGARREN GAIA
2016KO EKITALDIKO LANGILEEN PLANTILLA ETA LANPOSTUEN
ZERRENDA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

2016ko Aurrekontuarekin batera 2016ko Irura Udaleko langileen plantilla eta Lanpostuen Zerrenda aurkeztu da.

Con el Presupuesto de 2016 se presenta la Plantilla y la Relación de Puestos de Trabajo de 2016 de este Ayuntamiento.

Kontuei, Ogasunari eta Administrazioari buruzko informazio batzordeak aldeko proposamena egin dio 2016-02-11n egindako bileran.

La Comisión Informativa de Cuentas, Hacienda y Administración ha informado favorablemente en la reunión el 11-02-2016.

Hori kusita, Udalbatzak honako hau onartu du aho batez:

Ante ello, la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes, lo siguiente:

ERABAKIA

ACUERDO

Lehenengoa.- Behin-behineko onarpena ematea.

Primero.- Dar la aprobación provisional al mismo.

Bigarrena.- Espedientea jendaurreko informaziorako jartzea, Udal Aurrekontuarekin batera, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuz, erreklamazioak egin ahal izateko.

Segundo.- Someter el expediente a información pública, junto con el Presupuesto municipal, mediante anuncio en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa, al objeto de poder presentarse reclamaciones.

Behin betiko onartutzat joko da espedientea, erreklamaziorik ez bada aurkezten jendaurrean jarritako epean.

Se dará por aprobado definitivamente el expediente, si no se presentan reclamaciones en el periodo de información pública.

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, alkateak 19:40ean eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut, idazkari naizen heinean.

ALKATEA

IDAZKARIA